



HEZKUNTZA SAILA

Lanbide Heziketako Sailburuordetza
Teknologiaren eta Ikaskuntza
Aurreratuen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Formación Profesional
Dirección de Tecnología y Aprendizajes
Avanzados

HEZKUNTZA SAILA

EBAZPENA, Lanbide Heziketako Sailburuordearena, erakundeei bizitza osoan zeharreko ikaskuntzarako jarduerak egiteko diru-laguntzak emateko erabakia aldatzen duena.

118/2019 Dekretuak, uztailaren 23koa, bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko jarduerak egiteko diru-laguntzak emateko prozedura eta irizpideak arautzen ditu.

Hezkuntza sailburuaren 2023ko maiatzaren 30eko Aginduak aipatutako Dekretuak jasotzen dituen diruz lagundutako jarduerari buruzko proiektuak aurkezteko epeak eta baldintzak argitaratzen ditu 2023ko ekitaldirako.

Ondorioz, 2023ko urriaren 30eko Ebazpenak, Lanbide Heziketako Sailburuordearena, proiektuak antolatu eta garatzeko diru-laguntzak ebatzi izan zituen. Halaber, bere II. eranskinean erakunde onuradunak eta haien diru-laguntzen zenbatekoak aipatu zen, ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak egiteko.

Hori guztiagatik, aipatutako arauen arabera eta aplikazio orokorreko gainerako arauen arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.- 2023ko urriaren 30eko Ebazpena aldatzea behean aipatzen diren erakundeei emandako diru-laguntza murriztuz.

ERANKUNDEA	PROIEKTUAREN IZENA	HASIERAKO DIRULAGUNTZA	AMAIERAKO DIRULAGUNTZA
GIPUZKOA			
Lanbide Heziketaren Lagunak	Debagoieneko Ikasbitartekotza Zerbitzuaren Jarraipena	39.000,00 €	37.369,53 €
BIZKAIA			
Ikaslan Bizkaia	Servicio de mediación Nerbioi Ibaizabal + Mungialdea	57.000,00 €	46.500,00 €

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gorako errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza Sailburuari, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Jon Labaka Intxauspe
Lanbide Heziketako Sailburua

